

Nafarroak gizarte-zerbitzuen arloan “euskarririk gabeko zentroak” sustatuko ditu

Bere erregulazioa eguneko arretara eta gaixotasun mentalera zabalduko du eta zentroek sei hilabeteko epea dute funtzionamendua araudi berrira egokitzeke

Asteazkena, 2021ko Irailaren 8a

Nafarroako Gobernuak, gaurko bilkuran, onartu egin du gizarte-zerbitzuen arloan euskarri fisiko eta farmakologikoen erabilerari buruzko Foru Dekretua aldatzea, "euskarririk gabeko zentroak" lortzeko eta azken aukera gisa aplikatzeko helburuarekin.

Nahiz eta gaur egun arte indarrean izan den 221/2011 Foru Dekretua Estatuan aitzindaria izan zen onartzeko unean, eguneratu beharra ikusi da zenbait berrikuntza sartzearen; hala nola, aplikazio-eremua zabaltzea eguneko arretako gizarte-zerbitzuetara eta gaixotasun mentala duten pertsonen emandako zerbitzuetara, adinekoren eta desgaitasuna duten pertsonen zerbitzuari batuta, jada jasota dauden moduan.

Testu berrian, oinarritzko printzipioen artean aipatzen da euskarrien erabilera murrizteko aukerak bilatu behar direla eta euskarri horiek behin beste aukera batzuk baztertuta erabili behar direla.

Oraingoan, barandak euskarri fisikoen barnean sartzen dira, eta erabilera bakoitzaren aurretik berrikusi behar direla azpimarratzen da. Euskarri fisikoetan, halaber, euste-gelak arautzen dira, eta segurtasun- eta erosotasun-baldintzak bete behar dituztela adierazten da, horiek erabiltzeko medikuaren agindua eskatzearekin batera.

Zentroek 6 hilabeteko epea izango dute, argitaratzen denetik aurrera, funtzionamendua araudi berrira egokitzeke.

Gobernuak gaur onartutako testuan, proposamena jendaurrean egondako prozesuan egindako ekarpenak ez ezik, Nafarroako Kontseiluak egindakoak ere jaso dira. Aho batez onartu zuten, baita ere, Desgaitasuna duten Pertsonen Kontseiluetan eta Nafarroako Gizarte Ongizatearen Kontseiluan.

Dekretua pertsonarengan oinarritutako arreta-eredura egokitzea

Gobernu-bileraren ondoren emandako prentsurrekoan, Giza Eskubideetako kontseilari Carmen Maeztuk adierazi du “beharrezkoa zela, baita ere, araudia aldatzea pertsonarengan oinarritutako arreta-eredu berrira egokitzearen”, eredu hori Foru Komunitatean ezartzen ari dira-eta.

“Pertsona erdigunean jartzea eta haren erabakiak, lehentasunak eta aukera pertsonalak ahal den guztietan errespetatzea, betiere haren zaintza bermatuz, funtsezkoa da foru-dekretuko proiektu honetan aipatzen diren zerbitzuetan garatzen diren jarduera guztiak bideratzeko”, adierazi du kontseilariak.

Horrez gain, testu berrian jasotzen da euskarrien definizioa zabaltzea eta mota desberdinei buruzko xehetasun gehiago ematea; garrantzitsua da balio duten beste aukera batzuk aztertzen jarraitzea, horien erabilera murriztearen. Modu horretan, “zentroetako laguntza-taldeek pertsonak duen arazoa baloratu beharko dute diziplina arteko moduan, eta beti zaintza-estrategiaren testuinguruan edo diziplina arteko banakako arreta-planaren testuinguruan geratu beharko dute; horretarako, ordea, aurretik, euskarriez bestelako beste aukera batzuk aztertu eta burutzen direla bermatu beharko dute”.

Euskarri-motak

Dekretuaren barruan sartzen eta arautzen dira euskarri fisikoak nahiz farmako psikotropikoen aplikazioa, eta horiek norbanakoaren Arreta Planean eta/edo historia klinikoan erregistratzeak duen garrantzia

azpimarratzen du. Halaber, garrantzitsua da aurreikusitako iraupena eta berrikuspenen aldizkakotasuna jasotzea, tratamenduak iraupen luzekoak izanez gero.

Euskarri fisikoak dira pertsonaren jokabidea, mugitzeko askatasuna edo jarduera fisikoa metodo desberdinen bidez mugatzen dutenak, erabiltzen dituen lekuetan (adibidez, ohea, besaulkia edo aulkia). Halaber, berehalako arriskuaren aurrean pertsona bat menderatzeko presazko euskarria jasotzen du, edota "eustegelak" ere bai; hau da, gela itxi bat, pertsonaren eta/edo hirugarrenen segurtasun fisikorako berehalako arriskua dakarren jokabidea epe laburrean maneiatzeko bereziki diseinatua.

Lotura farmakologikoak, izenak berak dioen moduan, helburu bererako dira, eta, horretarako, farmakoak erabiltzen dira.

Maeztuk gogorarazi nahi izan ditu euskarrien eta baranden erabilera oinarritzeko eta bideratzeko zenbait funtsezko printzipio; hala nola, "pertsonaren duintasunetik, haren askatasunarekiko errespetutik eta haren autonomia sustatzetik hasita. Beharrezko tratamendu edo neurriei buruzko informazio egokia bermatzea; neurri horiek aplikatzean beharrezkoa ez den edozein kalte, sufrimendu edo narriadurari uko egitea; eta, nola ez, euskarri edo loturen erabilera murrizten dute ingurumen-sistemak edo jokabide-laguntzako neurri alternatiboak bilatzea eta eguneratzea".

Erabiltzaileek edo haien legezko ordezkariak agindutako euskarri-neurriak baztertu edo atzera bota ahal izango dituzte. Kasu horretan, idatziz jaso beharko da mendetasuna aplikatzeari uko egitea, eta interesatuak sinatuko du, edo, haren lekuan, legezko ordezkariak.

Etika Batzordea zabaltea

Bestalde, Nafarroako Arreta Sozialeko Etika Batzordea zabaltea ere onartu du gaur Gobernuak, Batzordea osatzen duten pertsonak gomendatutakoa kontuan hartuta, beste profil profesional batzuk ere sartzeko, beren lana egin ahal izan dezaten. Modu horretan, kideak gehienez 14 izan ahal izango dira. Gaur egun, 7 pertsonak osatzen dute.

Profilari dagokienez, lehendik daudenekin batera, filosofia, soziologia edo antropologia arloetako pertsonak sartzeko aukera izango da, besteak beste.

Kide berriek egun eskatzen den prestakuntza eta esperientzia izango dute, eta urtebeteko epean eskuratzeko aukera ere izango dute.

Era berean, genero-ikuspegia txertatuko da, egokia denean, eta datuak sexuaren arabera banakatuko dira txostenak pertsonari buruzkoak direnean, Berdintasunerako Nafarroako Institutuaren gomendioak jarraituz.

Neurri horien bitartez, Batzordearen lana bultzatu eta babestu eta ezagutzera eman nahi da. "Orain arte ez zeuden profil eta kide berriekin, organoaren ikuspegia zabalduko da, ezbairik gabe, aztertu beharreko gaien inguruan", adierazi du Maeztu kontseilariak.

Praktika sozialeko alderdi etikoak lantzeko organo aholku-emailea

Nafarroako Gizarte Arretarako Etika Batzordea organo aholku-emailea, diziplinartekoa eta independentea da, eta lan egiten du emandako laguntzarekin gizarte-zerbitzuak jasotzen dituzten pertsonen eskubidea ez urratzeko eta haien nortasuna, duintasuna eta intimitatea errespetatzeko, inolako diskriminaziorik gabe.

Horren eginkizunetako bat da praktika sozialeko alderdi etikoak identifikatzea, aztertzea eta ebaluatzea.

Baliabide honek tartean dauden pertsona guztiei (profesionalak, erabiltzaileak, familiak edo legezko ordezkariak, instituzioak, erakundeak eta bestelako agente sozialak) beharrezko aholkularitza etikoa eskaintzen die arlo horretan erabakiak hartzeko.

Badira, halaber, izaera sektorialeko edo zentroko etika-batzordeak, eta antzeko funtzioak dituzte murriztuagoak dauden eremu horietan.

“Gizarte-zerbitzuetan etika aplikatzearen helburua da behar bezalako arreta eskaintzea prozedura eta programetan eta baliabideak eta prestazioak zuzen banatzea, laguntza lortzeko eskubidea izateaz gain, horiek erabiltzen dituzten pertsonen autonomia lortzeko eta zerbitzu horien parte-hartzean eta kudeaketan agente aktibo bilakatzeko”, gogorarazi du kontseilariak.

Jarduera sustatu dezakete gizarte-zerbitzuen erabiltzaileek, haien familiek edo legezko ordezkariak, gizarte-zerbitzuetako profesionalek eta zentro, zerbitzu eta instituzioetako zuzendaritza eta kudeaketako arduradunek.

Batzordea Eskubide Sozialetako Departamenduaren mende dago organikoki, nahiz eta erabateko autonomia izan bere jardura guztietan. Departamentuak konpromisoa du organo horren lana babesteko; adibidez, berriki web gunea sortu dute Nafarroako Gobernuaren orrialdean:

[☞ Nafarroak gizarte-zerbitzuen arloan “euskarririk gabeko zentroak” sustatuko ditu](#)